

Ekitaldiz beteriko iraila Urnietan

Etxeberri plaza auzunean jaiak ospatuko dira irailaren 16tik 18ra. Irailaren 23an, bertso-afaria eta, segidan datoz Sanmielak / 13



Elkanoren marinel bat sorabillatarra zen. Haren historia bildu dute argitalpen batean / 12



Ainhoa Ostolaza Etxaniz Urnietako txirrindulari ohiari elkarrizketa / 8-9



Jaia, auzo-nortasuna indartzeko baliagarria

Andoain auzo herria da, eta horietako gehienek zer ospatua izan dute udan / 2-7



BURUZ BURUKO
kutxabank
TRAPELKETA 2022

**FINALAURREA IRAILAK 3
15:30ETIK AURRERA
GALARRETA JAI ALAI HERMANI**

**URRIZA · JUANENEA vs
EZKURRA II · AZPIROZ**

**BARRENETKEA IV vs
ANSA II**

**URRUTIA II · LARRAÑAGA vs
LOITEGI · APEZETKEA**

ORONIA
ORRIA MEMORI
FERREMONTEA
BIZIRIK

ORONA

AIURRI



Etxeberrieta eta Goiburu auzoen arteko herri kirolen desafioan parte hartu zuten kirolariak elkarrekin. AIURRI

Auzo-nortasuna Etxeberrietan

Ekitaldiz beteriko asteburua, uztailaren 29tik 31ra, ospatu zuten Etxeberrieta auzoan, eta Jai Batzordea oso pozik agertu zen ekitaldiek herritarren aldetik eduki zuten harrera onagatik

Xabier Lasa ANDOAIN

Gustu eta gogo guztiak asetzeko moduko ekitaldiez gozatzeko aukera eduki zuten Etxeberrieta auzoko biztanleek zein bertaratu ziren gainerako festazaleek: patata-tortilla, mus eta toka lehiaketak, Udalarekin elkarlanean musika-kontzertuak (Merina Gris, J. Martina eta Zigor DZ), danborrada, haurrentzako jolasak, sagardo dastaketa, kickboxing erakustaldia...

Goiburu eta Etxeberrieta auzoen arteko herri-kirolen desafioak aparteko ikusmina piztu zuten, eta ikusleek lepo jarri zuten Miranda Pasealekuko belardia. Azkenean, Goiburukoak nagusi, segan, txingan, lokotxa biltzean nahiz korrika. Ekimen horrekin garbi geratu zen, bes-

te behin, herri kirolak eta auzoen arteko lehia konbinazio bikaina suertatzen dela jendearen arreta pizteko. Mirandaola pasealekuko belardia herritarrek elkartzeko espazio gisa ere baliatu zuten, hainbat haur, gazte eta helduek afari merienda egingez bertan.

Nabarmendutako auzotarrak, zikiro jatean

Auzotarren bazkaria izaten da etxeberrietatarren ekitaldirik kuttunena, topagune gogoangarria izaten baita bertan bizi direnentzat edo, bertan jaio eta hezi arren, egun, handik kanpo bizi direnentzat. Egunik aproposena, eguneroko buruhausteak ahaztu eta bazkariaren aitzakiatan, lagun zaharrak agurtze-

ko eta tertulia gozoak edukitze-ko honekin eta harekin.

Hitzordu horretan, auzoko zenbait bizilaguni omenaldi xumea eskaintzen zaie: aurtan, lehenik, Carmen Milton nabarmendu zuten, nahiz eta Andoainen ez bizi, dagoen tokian dagoela, Etxeberrieta eta etxeberrietarrak beti-beti goratu izan dituelako. Jon Osa gaztea izan zen bigarren omendua, Jai Batzordean urtez-urte lan nekazina gauzatzen ari delako.

**AUZOTARREN
BAZKARIA IZATEN DA
ETXEBERRIETARREN
EKITALDIRIK
KUTTUNENA**



Jaien hasiera iragartzen zuen txupinazoa jaurtitzeko unean. AIURRI



Gainerako auzo-jaietan bezala, Etxeberrietan ere Euskaraldiaren mahaia jarri zuten haurrentzat. AIURRI



Goiburu taldeko Malou Henriksen segalaria eta Juantxo Lopez de Munain erakuslea. AIURRI



Unai Larrarte Etxeberrietako segalaria, eta ikusleak adi-adi. AIURRI



Luciano Uribesalgo eta Jesus Ibañez musikariak. AIURRI



Dantzaldi polita antolatu zen bazkarian. AIURRI



Karmen Miltoni esker ona adierazi zioten auzokideek. AIURRI



Etxeberrietako danborradak auzo guztian zabaldu zuen danbor hotsa. AIURRI



Danborrada gaztetxoez eta helduez osatu zen. AIURRI

Etxeberrieta, Goiburu, Buruntza.... Jaiak Aiurri.eus gunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala



Kronikak, iritzia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Sekulako gazte kuadrilla bildu da San Estebango oilasko biltzean, aurtan. Etorbizunean jai-giroa ziurtatuta dago auzo honetan. AIURRI

Egundoko jaiak Goiburukoak

Egundoko jai egitaraua prestatu zuen Jai Batzordeak aurtengo San Estebanetarako, eta oso harrera polita izan dute ekitaldi guztiek ere. Gazte eta heldu ugari aritu da lanean, jaiekin aurrera egiteko

Xabier Lasa ANDOAIN

Edonoren begietara ere harri-garria egin zen San Estebango jai egitaraua, ikusita zenbat egunez eta zenbat ekitaldiez potolotuta zetorren aurtan. Izan ere, Goiburu (ehunka) bizilagun gutxi batzuek osatutako baserri-azua izateko, erronka bikoitza zeukaten jarrita Jai Batzordeko kideek: antolaketari fin eutsi ez ezik, jende festa zalea erakartzea eta horiek goza zezaten bidea jartzea. Bada, soberan gaintitu zuten konpromisu itzel bezain polit hori. Oilasko biltzeko irudiak ikusi besterik ez dago ohar-zeko auzoko gaztediak nola

sentitzen duen jaia, nola inplikatzeko den bere antolaketan, eta hori guztia unean-unean gozatzeaz ahaztu gabe.

Egia esan, ofizialki jaiak uztailearen 31n hasi baziren ere, aurrez, uztailearen 23an, festa-atari polita eduki zuten, Andoaingo Udalak eta Jai Batzordeak elkarrekin antolatuta. Kirola (Oztopoen lasterketa), musika (Urtz taldearen emanaldia) eta afari baten jiran sozializatzeko parada eduki zuten egun hartan. Dozenaka herrikide elkartu zen Goiburun, festaz gozatzeko gogo bizia zegoenaren erakusle. Tradiziozko oilasko biltzearekin ekin zioten

San Esteban jaiei, uztailearen 31n. Gazte kuadrilla galanta baserri ibili zen jaiak hasiak zirela umore ezin hobean auzotarrei iragarritz, eta hortik aurrera, ekitaldiak bata bestearen atzetik heldu ziren egunez egun: kanpai jotzeak, meza, Gora Kaltetxiki Bandaren kontzertua, kirolak (eskuzko eta pala txapelketak, auzotarren arteko herri kirolak, malkar Krosa, bazkari eta afariak, musika kontzertuak, erromeriak...). Auzotarrez gain, Andoaingo hainbat herritar hurbildu zen Goiburu auzora egunez nahiz gauez, oinez nahiz bus zerbitzua erabiliz.



Oilasko biltzaileek ederki astindu zituzten besoak, gerriak eta zangoak. AIURRI



Ander Setien eta Iñigo Martinez helmugaratzeko unean, pozik, Malkar krosean. AIURRI



Auzotar eta herrikide ugari elkartu zen auzo-afarian. AIURRI



Hainbat auzokidek hartu zuten parte kanpai errepikan. AIURRI



Josu Lekuona eta Aran Mujika musikariak, Kantu-jiran. AIURRI



Itxafero-jaurtitze zaratatsua antolatu zuten San Esteban festak iragartzeko. AIURRI



Xabier Alkorta, aurtengo pala txapelduna, Koldo Poncerekin bikotea osatuta. AIURRI



Sigueni Hicham, Idoia Nogales, Lourdes Colomo, Aimad Bouziane, Andoni Saldias, Maialen Gurrutxaga eta Maite Beregaña, Malkar krosetako azkarrenak. AIURRI



Pala txapelketako antolatzaile eta parte-hartzaileak elkarrekin. AIURRI



Larunbat arratsaldeko auzotarren arteko desafiara dozenaka auzotar hurbildu zen. AIURRI





Errotzen ari da Olagaineko txistulariek, Urkiko dantzariak eta herritarrek egiten duten Soka dantza. AIURRI



Joxe Ramon Telletxea, Urtzi Nazabal, Alazne Intxauspe, Edurne Telletxea eta Aiora haurra, pintxo banaketan. AIURRI



Agin Laburu eta Aitor Mendiluze, bertsotan. AIURRI

Jaiari eutsi diote Buruntza auzoan

Abuztuaren 15a eta 16a egun bereziak izan ziren Buruntzako auzotarrentzat. Une atseginak gozatzeaz gain, auzo sentimendua indarberritzeko balio izan zien. Sanrokeak ospatu dira, beste urte batez

Xabier Lasa ANDOAIN

Egia da azken urtetan Buruntzako jaien gainean aipatzen dena; hots, abuztuaren erdi-erdian ospatzen direla, eta gainera, Donostiako, Zizurkilgo eta Adunako jaiekin lehiatu behar izaten dutela. Hori guztia horrela izanda ere, aurten bertan ikusi da ez direla herritar gutxi Buruntzako jaiak maite dituztenak.

Bi egun gogoangarri

Ohitura zaharrak, festa giroa eta kultura uztartzea gogoko dutenen neurri antolatu zituen San Rokeak Jai Batzordeak, modurik xumeenean. Susana Cencillo akordeoilariak eta Gu-

rrutzaga gitarra-joleak mundu zabaleko zein Euskal Herriko doinuekin kalitate handiko kontzertua egin zuten lehenengo egunean, San Roke egunaren bezperan, auzoan jarritako festa-gunean.

Biharamun goizean, Olagain Txistularien elkarteko kideek txistu doinua baserriz baserri zabaltzen aritu ziren, jai eguna iragarritz. Txistu hotsak isilduta, San Roke eta bere zakurraren estatua txikia aurrean zutela, zenbait auzotarrek, mezan parte hartu zuten San Martin eliza zaharreko aztarnategian. Inñaki Zabaleta Andoingo erretoreak eman zuen elizkizunean, aurten auzoan zendu direnak gogoan

hartu zituzten. Meza amaitu ostean, Olagaineko txistulariek, Urkiko dantzariak eta auzotarrek Soka dantza ospatu zuten, eta hamaiketako eder batekin gozatzeko aukera eduki zuten auzora bertaratu zirenek.

Elustondo anai-arrebekin ospatu zuten erromeriarekin eman zieten agurra San Roke jaiei aurtengoz.

Agin Laburu eta Aitor Mendiluze bertsolariek Buruntzan egun osoko egonaldia egin zuten, eta hiru bertso saio eskaini zituzten, zein baino zein entzungarriagoa: mezan barrena bata, goiz parteko ekitaldietan bigarrena, eta auzotarren bazkarian hirugarrena.



Haur ugari hurbildu zen Euskaraldiak ipinitako mahaian marraztera. AIURRI



Auzotarrek urteroko bazkaria ospatu zuten, Gaztafiaga sagardotegian. AIURRI



Alberto Agirrek abestutako meza ospatu zen San Esteban egunean. Nondik hots egin, hara gogoz joaten dira abesbatzako kideak. Datorren irailaren 8an, esaterako, Sorabillan ariko dira. AIURRI



Jai Batzordeko kideak, 2019ko edizioan. Hura izan zen jaiak antolatu ziren azken urtea. AIURRI

Sorabillan ospakizuna, irailaren 8an

Koruko Amaren egunean, meza eta hamaiketako eskainiko dute Sorabillan. Azken jaiak 2019an ospatu baziren ere, ekitaldi xumea egitea erabaki dute aurten. Meza 11:30ean hasiko da, eta ondoren hamaiketako, Eider eta Lierni trikitilariak alaituta

Xabier Lasa ANDOAIN

Sorabillako jaiak ospatuko dira aurten, Koruko Amaren egunarekin bat eginez. Irailaren 8an izango da. Meza 11:30ean izango da, Sorabillako erretore Manuel Oartzabalekin, eta Alberto Agirre abesbatzak abestuta; musika erlijiosoko kantutegia biziberri-tuko du abesbatzak, ohi duen moduan. Ondoren, auzotarrek hamaiketakoaren inguruan biltezeko aukera edukiko dute, Jai Batzordeak zerbitzatuta. Sorabillako jaiak, normaltasunez, 2019an ospatu ziren azkeneko aldiz. Osasun krisia zela medio, ezin izan ziren ospatu ondorengo bi urteak. 2019ko hartan, urtetan jaia antolatzeaz arduratu zen auzotar taldeak aditzera

eman zuen jada ez zuela segiko eginkizunarekin. Nolanahi ere, aurten, talde berria heldu bitartean, trantsizio moduan eta jaiantzat garai hobek heldu bitartean alegia, ekitaldi xumea antolatzea erabaki dute irailaren 8rako, esan bezala.

Beti eduki dute estimazio handia Koruko Amabirjinaren egunak eta berarekin ospatu izan den hamaiketakoak Sorabillan, aspaldiko auzokide eta adiskideen topagune bilakatzen baita.

Jende ororentzat aparteko eguna izaten da; bai, auzoan hazi, hezi eta bizi direnentzat, bai kanpokoak diren helduentzat. Horrelakoxea izatea espero da aurtengoa ere.

ANDOAINGO EUSKARALDIA BATZORDEA IRAILEAN ABIATUKO DA

Parte hartu nahi al duzu?

IDATZIGUZU andoain@euskaraldia.eus e-postara



Andoni Urbistondo URNIETA

Ainhoa Ostolaza Etxaniz txirrindularia izan zen 80. eta 90. hamarkadetan (Urnieta, 48 urte). Txirrindulari profesionaltzat har genezakeen, baina ez zen erabat hala izan, Espainiako ADO olinpiar bekek ematen zuten laguntza ekonomikoarekin moldatu behar izan baitzuen. Justu antzean, egiari zor. Sakrifizio asko eginez, soldata duin ziuurrik gabe. Urnietako Goi Mendi tabernan bere argazki pare bat ikus daitezke, baina herrian jende gutxik daki Ainhoa Munduko Pista Txapelketetan, edota Espainiako errepide txapelketetan dominak eta ohorezko postuak lortutakoa dela. Alegia, punta-puntan ibili zela bospasei urtez.

Bere kasua tropelean bidai lagun izan zituenei ere gertatu zaie: Artolazabal ahizpak, Josune Gorostidi, Arantxa Orbegozo *Txitxi*... 30 urte luze itzalpean pasa ondoren, euren kirol ibilbideak argia ikusiko du laster, dokumental batean. Izan zirelako dira, eta direlako izango dira beste batzuk etorkizunean. Iraganera jauzi egin nahi izan dute, orainak beren bizipenak irents ez ditzan, eta etorkizunak beren jarduna gogoan gorde dezan. Asmo hori izan gabe sortuko da dokumentala, gainera, oharkabean.

Ostolazaren azalpena, zergatiak: “Nik 1995ean utzi nuen txirrindularitza. Ilusiorik gabe, ez neukalako batere errekonozimendurik. Babes ekonomikoa ere oso eskasa zen. Ibiltzen ginen taldetxoko kideok geure bide propioa egin genuen erretiroa hartuta: lana, familia bat sortu... Bi hamarkada luze pasa ondoren WhatsApp talde bat sortu genuen, eta ondoren hilean behin elkartzen hasi ginen Tolosan, Arantxa Orbegozo *Txitxiren* etxean. 2018an hasi ginen. Elkartzeko haiek batean norbaitek bota zuen, ea zergatik ez genuen bikiletan bidai bat egiten, txirrindularitza garaiak gogoratzeko, eta hor sortu zen egin berri dugun bidaiaren lehen hazia”.

Bidaia aberasgarria

Portugalgo Coimbra hirian abiatu ziren, uztaila bukaeran, eta Galiziako Bayona herrian bukatu, astebete geroago. Elkarrekin egon nahi zuten, hiru hamarkada lehenago bizi izandako

Izan zirelako dira

TXIRRINDULARITZA Ainhoa Ostolaza Etxaniz urnietarrak iraganeko pasadizoak gogoratu ditu 90. hamarkadan txirrindularitzan bidai lagun izan zituen kideekin, Portugaldik Galiziarara egin duen astebeteko bidaiarekin

pasadizoak gogoratu, berpiztu. Ostolaza: “Gozamen izan da. Barne bidai baten modukoa, bakoitzak gure istorio propioak ditugulako. Onak eta txarrak. Batzuk minbizia pasata, eta kitolan sartuta, besteak covid-a

harrapatu, eta lau egun geroago elkartu behar gurekin...”. Coimbra joateko erabili zuten bi furgonetetako bat ere matxuratu egin zitzaion, eta hala moduz konpondu behar izan zuten egoera hori.

30 urte geroago beren lagunatasuna sendotu dutela dio Ostolazak: “Konfort gunetik atera gara astebetetz, ederra izan da”. Lasai ekiten zioten egunerokari, 60 bat kilometroko jarduna osatzeraino: “Goizero grabatu

beharreko gaiak lotzen genituen, nondik nora jo eta beste. Bizikleta elektrikoarekin joan naiz ni, baina batzuetan erabili ere ez dut egin”. Bazkalostean beste tartetxo bat egiten zuten pedalei eragiten, eta ondoren aisia: “Aveiro, Povia, Espino... Hondartzetan egin ditugun gauak ederrak izan dira, egonean gure artean solasean... Merke-merke! Zer esan jendeari buruz: oso jende lasaia, adeitsua, batere estresik gabe bizi dena. Europako Pista Txapelketak jokatu ziren Anadia herrian, eta han Nahia Amondarain pistard tolosarra eta bere gurasoekin egon ginen. Belodromoan itzuli batzuk ere eman genituen!”.

Ostolaza oso babestua sentitu da bidaiari: “Konfiantza, lasaitasuna, energia positiboa helarazten duten pertsonak dira Artolazabal ahizpak, eta *Txitxi*, gure amatxo partikularra. Zegoen harremana sendotu, indartu da, eta gazte garai haiek oroitza penak politak izan direla jabetu gara. Batzuk nahiko gordinak izanda ere. Txinparta handiko pertsona naiz berez, erraz berotzen dena, eta hori neurtzen jakin izan dute nire kideek”.

Pablo Dendaluzeren dokumentala

Bidaiak protagonisten oroitzapenen kutxan geratu behar zuen. Euren barne bidaiaren, baina kasualitateak, edo patuak, bilakaera ezberdina emango dio bidaiari. Pablo Dendaluzek dokumental egileari txirrindulari ohien ekimena iritsi zitzaion belarrira, Tolosako kaleetan topatu ziren egunen batean, eta ideien makina martxan jarri zen bere buruan. Dendaluzek Aitzindariak dokumentala osatuko du Tolosan elkartzen hasi ziren txirrindulari koadrilarekin, eta Portugalgo bidaiaren parte hartu duten beste kide batzuekin.

Dendaluzek haiekin batera egin du astebeteko bidai, eta bidai baina lehen hainbat elkarrizketa egin zizkien protagonistei, dokumentala aberas-teko asmoz. Ordu askoko materiala bildu du tolosarrak, lanean hasteko sobera, baina dokumentalak berak hilabete batzuk beharko ditu erabat osatua izan bitarte. Izan ere, protagonistek iradoki diote dokumental egileari grabatu ez dituen hainbat pasadizo, momentu grabatzea egokia litzatekeela. Ostolaza:



Ainhoa Ostolazak txirrindularitzaren elitea ezagutu zuen 90. hamarkadan. **AIURRI**



Garai batean taldekide izandako lagunak Galizia-Portugal zeharkaldia egiteko elkartu ziren. Astebete horretakoak dira argazkiak. OSTOLAZA



Ostolaza, Orbegozo eta Artolazabal ahizpak, eguna bizikleta gainean pasa eta gero. OSTOLAZA



Urrian elkartuko dira berriro Euskal Herrian Portugalgo bidaia egin duten protagonistak. Hilabete horretan egiten zaio omenaldia Marino Lejarretari, eta, hori baliatuz, Euskal Herrian elkartuko dira berriro astebetez, dokumentala aberasteko falta diren testigantzak bildu eta produktu osatuagoa egite aldera. Berriro elkartu aurretik dokumentalaren trailer bat ikusteko aukera izanen dute protagonistek, eta iritzi jantziagoa edukita saiatuko dira azken ukitua ematen 'Aitzindariak' dokumentalari.

Dendaluze egileak, protagonistek bezala, 30 urte atzera egin zutena ahanzturan ez geratzea lortu nahi luke, erronka gisa. Dendaluze: "Meritu handia dauka bere garaian egin zuten bideak, baina bide hura gure gaur egungo jendartean nahiko ezezaguna dela esango nuke. Hutsune hori apurtxo bat estaltzea lortuko bagenu, neu konforme".

Txirringulari izandakoak ere sumatzen hasiak dira dokumentalak oihartzun handi samarra izan dezakeela. Ordiziako Klasiako errepidetik ikusi zuten hainbatek, eta epaile izandako emakume pare batek txantxetan esan omen zieten: "Zer, aitzindariak zuek bakarrik ala?". "Hitz egin genuen beraiekin eta euren lekukotzak ere sartuko ditugu dokumentalean agian. Aitor Elduaie kazetariak ere post bat jarri zuen facebook sare sozialean, gurekin argazki bat nahi zuela, aitzindariak izan ginelako. Jabetzen gara jende dezente ezagutzen duela gure iragana, eta ezagutza hori handitzen saiatuko gara 'Aitzindariak' dokumentalarekin".

Egunak kontatzen hasi, dokumentala ikusteko.

"Une horiek Pablok bere eguneroko lana bukatuta eman dira. Askok grabatu du, baina era berean asko errespetatu du taldearen intimitatea ilunabarretik aurrera, furgonetan egiten baitzuen lo. Guretzat izan diren une horietan testigantza interesgarriak egon direlakoan gaudela, eta horiek jasotzeko proposamena egin diogu Pablori,

mikrofona gehiago erabili behar zuela. Esango nuke asko gozatu duela Pablok grabazioekin, huna-

TXIRRINDULARITZAN BIDEA IREKI ZUEN EMAKUME TALDEAK, TARTEAN OSTOLAZA URNIETARRAK

kitu dela hainbat momentutan. Bere emaztea dena ere txirringularia izan zen gure garaian,

PABLO DENDALUZE 'AITZINDARIAK' IZENEN DOKUMENTALA OSATZEN ARI DA

gu baino gaztetxoagoa izanda ere, eta badaki nolakoak izan ziren urte haiek".

ITZALPEAN URTE LUZEZ PASA ONDOREN, EUREN KIROL IBILBIDEAK ARGIA IKUSIKO DU



Hamargarren denboraldia irailean abiatuko da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KM0 produktuez betetako otarra.





Uztailean amaitu zen denboraldia, eta hilabeteko atsedenaldiaren ostean berriro ekin dio prestaketari. SUKUNTZA

"Maila hobetzeko, lanean jarraituko dut"

AIMAR SUKUNTZA ZUMEATARRA ELKARTEKO KIROLARI GAZTEA

19 urteko lasarte-oriatarra Zumeatarra Kirol Taldeko lasterkaria da. Umetatik harreman oso estua eduki du kirolarekin, gurasoak ere kirolzale amorratuak baitira



Lasterka, bizikleta gainean eta igerian aritzen da gehienbat Sukuntza. SUKUNTZA

Mikel Arberas ANDOAIN

Bizitza osoa darama kirola egiten; batez ere, lasterkaria da, baina bizikletan eta igeriketan ere aritzen da.

Lasterketako zein diziplina duzu gustukoena?

Triatloia da gehien gustuko dudana kirola. Hala ere, errepideko lasterketetan eta krosetan ere parte hartzen dut. Hauetan, gehien bat negu aldean parte hartzen dut eta oso gustuko ditut, izan ere, giro berezia sortzen da. Ikusleak eta zaleak lasterkariekin asko inplikatzeko dira.

Ba al duzu erreferenterik kirolean?

Egia esan, ez dut erreferente zehatzik. Hau da, arreta jartzen dut kirolari profesionalak nola aritzen diren eta zer egiten duten, baina ez naiz sutsuki erreferente bat jarraitzen duen horietakoa.

Iragan denboraldian maila oso altua erakutsi zenuen...

Uztailean amaitu zen denboraldian oso gustura aritu nintzen lehian, eta maila oso ona erakutsi nuela esan dezaket. Txirrindularitzan, igeriketan eta lasterketan asko hobetu nuela esango nuke eta lortutako emaitzak horren seinale dira. Hala ere, orain arteko maila hobetzeko lanean jarraituko dut etorkizunean.

Udan ere entrenatzen jarraitu al duzu?

Aurreko denboraldia uztailean hasieran amaitu zen, eta ia hilabeteko atsedenaldia hartu nuen. Ondoren, gutxinaka, denboraldia berriaren prestakuntzari eta entrenamenduei ekin diot; jada hilabete daramat lanean. Txapelketei dagokionez, berriz, denboraldia amaitu zenetik ez dut lehiatu.

Denboraldi berriari begira, helburuak jarri al dituzu?

Arestian esan bezala, hiru diziplinetan hobetzeke gauza asko ditut, beraz, helburuetako bat entrenatzen jarraitzea da, txirrindularitzan, igeriketan eta lasterketa maila altuagoa lortzeko. Hala ere, nire helburu nagusia ondo pasatzea eta jende berria ezagutzea da; izan ere, kirolari denbora luze eskaintzen diodan arren, nik denborapasatzat ditut triatloia eta atletismoa.

Egunen batean profesional mailara jauzi egitea gustatuko litzazuke?

Oso polita eta berezia litzateke profesional mailara iristea, baina egungo kirolarien maila ikusita, ez dut nire burua profesional gisa ikusten. Oraindik asko ikasi behar dut, eta profesionala izateak eskatzen duen esfortzua izugarria da. Horregatik, lehen hezkuntzako irakasle gisa lotzen dut nire burua eta denbora librean egun egiten dudana jarraituko dudala pentsatzen dut. **Zure izena daramaten albisteak eta lerroburuak irakurtzen jarraituko dugu irailetik aurrera?**

Pozgarria litzateke irailetik aurrera niri buruzko albisteak Aiurrin eta beste hedabideetan ikustea, baina horretarako gogor entrenatzen jarraitu beharko dut, betiere ikasketekin uztartuta.

"LEHIAN OSO GUSTURA ARITU NAIZ ETA DENBORALDIA OSO ONA IZAN DELA ESAN DEZAKET"



AIURRI

Pilota txapelketa Xoxokan

PILOTA Xoxokako pilota txapelketa martxan da. Norgehiagokak abuztuaren 30ean hasi ziren. Auzotar zein pilotazale ugari erakartzen ditu txapelketak, izan ere, bestelako jokamoldeek eta frontoiaren berezitasunek ikusmira handia sortzen dute. Pilotako finala Xoxokako jaietan jokatuko da, urrian.



SANPEDRO

Lehen mailarako bidean

ARRAUNA Jon Jauregi andoaindarrak eta Imanol Olasagasti adunarrak lorpen handia eskuratu zuten, ARC1 ligan lehen postua lortuta. Iragan abuztuaren 21ean izan zen. Irailaren 17an eta 18an play off-etan lehiatuko dira maila igoera eskuratzen saiatzeko. Argazkian ikus daitekeenez, pozarren daude San Pedroko arraunlariak.

Urriza zain dute

ERREMONTA Urrizak 30-23 irabazi zion Juaneneari Kutxabank Torneoako ligaxkako azken partidari. Iruñeko aurreleria finalista da ligaxkako hiru partidak irabazita eta hamabi puntu lortuta. Larunbateko finalerdia Ansak (zortzi puntu) eta Barrenetxeak (lau puntu) jokatuko dute. Larunbat arratsaldean hasiko da jaialdia, 15:30ean, Galarretan. Bigarren partidari ariko dira biak.



ORIAMENDI



Maria Luisa Gabirondo. ALMITZA

Gabirondo bigarren Europako sega txapelketan

Andoaindarrak Alemaniako Bavarian jokatu zen Europako taldekako sega txapelketan parte hartu zuen, joan zen abuztuaren 14an. Bertan Suitza, Hego Tirol, Austria, Bavaria eta Euskal Herriko segalarien taldeak lehiatu ziren.

Emakumezkoetan, euskal taldea bigarren geratu zen. Alaitz Imaz, Jugatx Agirre, Maria Luisa Gabirondo eta Maider Garmendia izan ziren euskal ordezkariak. Gabirondo lehiaketetara itzuli egin da zenbait urteren ostean, eta segari gogo biziz heldu dio, Aiurri adierazi dionez. Adierazpen horiek datorren asteko Aiurri astekarian irakurri ahal izango dira.

Ganbararen deialdia, denboraldi berriari begira

Irailaren 5ean, hasiera eman nahi dio denboraldiari Andoaingo saskibaloitza taldeak. Allurralden ipini dute hitzordua, arratsaldeko 18:00etan hasita. Aurreko urteetan gazte eta junior talde bana aritu da lehiari, eta denboraldi honetan ere aurreko urteetan landutakoari jarraipena eman nahi diote.



IRITZIA | VUELTA '22


ANDONI URBISTONDO URNIETA

'Pit Bull' Remco

Goitzenak edo moteak jarri zaleak gara oso egungo gizartean. Neu ere bai. Remco Evenepoel-ek bakarren bat ba ote zeukan ez nekien, baina Vueltako lehen astean sarri entzun dut bat Eurosport kateko Javier Ares esatariaren ahotan. Pit Bull esaten dio Remco gazteari, Vueltako liderrari. Gorputz txikia baina indartsua daukalako esango dio, noski, halakorik. Zakur ezagun horien parekoa. Akaso Pit Bull rapero eta DJ famatuaren antza sumatu dio Ares-ek Evenepoel-i, batek daki...

Pit Bull-a Espainiako Itzuliko liderra da. Nahieran gobernatzen ari da Vuelta, erakustaldiz erakustaldi. Uztaila bukaeran Donostiako Klasikoan Erlaitzen gora eta ondorengo kilometroetan egin zuen balentrian ohartarazi zuen, dagoeneko, zertarako gai den. Gorantz ikaragarri dabil, Italiako Livigno eski estazioan beldurra ematen duten entrenamendu saio nekagarriak egin ostean. Lau kilo galdu omen ditu azken hilabeteetan, eta pinpilinpauxa bezain arin dabil mendian gora arin-arin. Erlojupekoetako espezialista, eta klasiko zale bezala ezaguna zen Remco, eta asteartean, Alacant-eko kronoa eta gero, Vuelta hiltzorian utzi duela diote askok. Funtsa dute, halako analisiek, hiru minutura baitauzka Roglic esloveniari hegalaria eta maitasun zein gorroto keinuak eragiten dituen Enric Mas.

Espainiako hegoaldean ibiliko da Vuelta hurrengo bi astetan, Iberiar penintsulako labean. Inurriak ilunabarra



Evenepoel gaztea. QUICK-STEP

arte bazka bila ateratzen ez diren infernua. Troppo caldo, Italian dioten bezala. 34/36 gradu iragarri dituzte astebururako Granada aldean, eta horrek askoren gorputza erasan dezake, zainak idortzen joaten baitira hainbesteko saparekin. Remco diktadoreen pare zaintzen ari da bere aurkariak. Ez zaio zirrikiturik sumatzen, baina ez da inoiz oraindik halako egoerak kudeatzeko beharrez sentitu. 22 urteko gaztetasuna izan liteke bere berrero. Nola jokatu, talde on baten laguntzarik gabe, egoera okertzen denean. Parametro hori erabili behar, Vueltak bizirik jarraitzea nahi badugu. Neurgailu gisa hanka zuztarretan daukan indarra hartzen badugu, jai dago. Vuelta Remcorena da, bai edo bai.

PIT BULL-A VUELTA KO LIDERRA DA. NAHIERAN GOBERNATZEN ARI DA ESPAINIAKO ITZULIA



VUELTA '22 AIURRI.EUS

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aurkezpen ekitaldia egin zuten Andoainen, astelehenean. AIURRI

Lorentzo Iruña sorabillatarra, Elkanoren marinela

“Lorentzo Iruña. Sorabillako marinela mundua lehenengoz inguratu zuen itsasaldian” liburuxka aurkeztu zuten, astelehenean, Juan Sebastian Elkanorekin batera itsasoratu zen marinela izan zen Iruña

Xabier Lasa ANDOAIN


Hamar orrialdeko argitalpen irakurterraza, etxez etxe banatuko dute hurrengo egunetan, irailaren 6a, “Elkano Eguna”, EAEn jaiegun izatearen harira. Lorentzo; egiazki, ezin izan zuen itzuli, bidean gaixotasunez hil baitzen. Garai hartan Andoaindik bereizitako unibertsitate askea zen Sorabillako semea izan zen Iruña.

Maider Lainez Andoingo alkateak, Udal artxiboko Karmele Otaegi arduradunak eta Marta Trutxuelo langileak aurkeztu zuten liburuxka, udaletxeko pleno aretoan.

Lainezek liburuxkak non duen jatorria azaldu zuen: “Orain dela hiru urte, Getarian, mundua osorik lehenengoz inguratu zeneko urteurrenaren harira, antolatu ziren ospakizunetako batean jakin nuen itsasal-

di hura egin zuten marinela ausarten artean bazegoela andoaindarrik, hau da, herrikidea genuela”.

Udal artxiboko langileei datu hori baieztatzeke eskatu zela



Liburuxkaren azala. UDALA

erantsi zuen Lainezek. Eta, halaxe, Iruñaren aipua Tomas Mazon Serranoren argitalpen batean topatu zutenean, “poza eta sorpresa” hartu zutela ziurtatu zuen.

Irailaren 6a, Elkano eguna

Mazon historialariarekin harremanetan jarri, eta Lorentzo Iruñaren gaineko ikerketa egitea proposatu zioten. “Lehen mundu biraren 500. urtemuga ospatzen den 2022 urte honetan, irailak 6a Elkano Eguna jai eguna dugu, eta hori aprobetxatuta, egokia iruditu zitzaigun liburuxka argitaratzea andoaindar bat lehen mundu biran parte hartu izana zabaltzeko Andoainen”. Azkenik, Lainezek adierazi zuen: “Herrikidearen balentriaren berri izango dugu, denon oroimenean merezi duen lekua emanez”.



Tomas Mazon Serrano. ZENDALIBROS.COM

Tomas Mazon Serrano, egilea

Villanueva de la Serenakoa (Badajoz) da; ogibidez ingeniaria da eta historiagilea zaletasunez. Haren lana Jon Unanue udal itzultzaileak euskaratu du. Elkanoren biraren gainean aditua izanik, jada hiru liburu argitaratu ditu: “Espinosa, el ultimo capitán de la vuelta al mundo” eta “Elcano, viaje a la historia”. Aldi berean, berea da gaiari buruzko informazio jakingarriez (kontakizunak, mapak, iturriak, lekukotzak, ekintzak...) hornitutako www.rutaelcano.com webgunea.

Historia kontatzera doanean zein den bere jokabidea azaltzen du, besteak beste: “Espedizio honek hasiera-hasieratik mirespena eragin zuen, eta, beraz, asko idatzi da hari buruz. Nolanahi ere, zer gertatu zen eta nola gertatu zen ez desitxuratzeko, jatorrizko iturrien bidez soilik dokumentatzen saiatu naiz, hau da, protagonistek eta garaikideek utzitako idazkien bidez, zorionez asko baitira. Neure burua historialari batengana hurbiltzen saiatu naiz. Izan ere, historialari batek kontatutako gertakizun historiko batzuen kontakizunak eta ikuspegiak aseptoak izan behar dute, aurreiritzirik eta balio-iritzirik gabea. Hortik abiatuta, bakoitzak zer gertatu zen eta nola gertatu zen pentsatu ahal izango du, dokumentatutako egitateen oinarri sendo batekin egiten duela bermatuz. Hori da helburua”.

Behin printzipio hori zehaztuta, irakurlea “gure nabigatzaileek zalantzarik gabe sentitu behar izan zituzten emozioei buruzko irudimena askatzera” gonbidatzen du Mazonek: “Magallanesen itsasarte aurkitzean sortzen den poza, hainbeste lagun hiltzen ikustean sortzen den etsipena, norbera hurrengo izango ote den jakin gabe, edo munduari bira ematen lehenak nor diren jakiteko loriaren ilusioa, ziur aski dokumentatuak bezain egitate errealeak dira, baina zuri dagokizu horiek lerro artean estimatzen jakitea, gertatutakoaren ikuspegi aberatsago eta osoagoa sortzeko”.





Irailaren 28an hasi eta urriaren 2ra bitarte Urnieta jaietan murgilduko da. Aurretik jaiak ospatuko dira Etxeberri plazan. AIURRI

Ekitaldiz beteriko iraila

Uda amaierak urtero iragartzen die urnietarrei jai-giroan sartzeko unea dela. Hala, bi urteko parentesi pandemikoaren ondorenean, inoiz baino gogotsuago hartuko dute herritarrek irailaren amaiera, zapia lepoan jantzi eta festez gozatzeko prest

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udako ospakizunekin nahikoa ez, eta irribarre handi batekin egiten diote urnietarrek ongi-etorria beti irailari. Izan ere, hilabete amaierako asteburuan herriko festa garrantzitsuenak ospatuko dituzte. Ez da hori jai giroan murgiltzeko aitzakia bakarra izango, ordea: lehenago, Etxeberriko jaiak eta Oianumeko bertso-afaria izango dira. Etxeberri auzoko jaiekin batera hasiko dira kontuak eta kantauak Urnietan. Hori horrela, egitarau oparoa antolatu dute auzokideek, irailaren 16tik 18ra bitarteko asteburuan. Txupinazotik aurrera, hamaika ekintzako agenda izango da herrian: musika-emanaldiak, herri-bazkaria, adin guztiei begirako ginkana, zirko-ikuskizuna eta beste makina bat hitzordu bilduko dira Etxeberri plazaren bueltan egun horietan.

Bertso afaria, hilaren 23an

Hariari tira eginez etorriko da, irailaren 23an, usadio luzeko jaien bezperako bertso-afaria, Poxta Zahar gazte kuadrillen elkartearen zein Aiurriren elkarlanaren ondorio. Amaia Agirrerren gidaritzapean, errimen nahiz doinuen bueltan izango dira Maialen Lujanbio Zugasti eta Amets Arzallus Antia bertsolariak kantari, Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusiko finarelako bi hilabete pasatxoren faltan. Oianumeko sagardotegiko kupelen artean izango da saioa, eta hilaren ipiniko dira

JAIEN BEZPERAKO BERTSO-SAIOAN ARIKO DIRA MAIALEN LUJANBIO ETA AMETS ARZALLUS

sarrerak salgai 30 euroko kostuan: Urnietan, Matxo, Kantoi eta Oianumen; eta, Andoainen, aldiz, Ernaitza liburu-dendan nahiz Aiurri berton.

Sanmielak ate-joka

Alabaina, bi asteburu horien ajeen ostean iritsiko dira herritarrek grin handiz itxaron dituzten festak: Sanmielak. Asteazkenarekin emango zaio hasiera jai-giroari, hilaren 28an, San Miel egunean, hain zuzen ere. Hortik aurrera, eta, igandera bitarte, adin eta gustu guztiei begirako ekintzez gozatzeko aukera izango dute, bai bertakoek, bai inguruetatik gerturazten diren parrandazaleek. Horretarako, burubelarri dabilta lanean askotariko antolatzaileak, Urnietari zer gozatua emateko. Hortaz, ez da aspertzeko tarterik izango herrian.

Hiru hitzordu aipagarri



Etxeberri plazako jaiak. AIURRI

Jaiak Etxeberri Plazan Irailaren 16an hasi eta asteburu osoan ospakizunak izango dira Urnietako auzunean. Herri bazkaria egingo dute irailaren 17an eta txartela erosteko azken eguna irailaren 14a izango da.



Bertso saio ugari egin izan dira Oianumen, jaien atarian. AIURRI

Bertso afaria Oianumen Iñistorrak antolatzen zuen bertso afaria, eta aurtengoan Poxta Zahar gazte taldeak eta Aiurrik hartu dute bere gain antolaketa lana. Lujanbio eta Arzallus ariko dira kantari, irailaren 23an. Txartelak irailaren 7an salgai jarriko dira.



Sanmielei hasiera irailaren 28an emango diote. AIURRI

Sanmielak Urnietan Irailaren 28a asteazkena da, San Miguel egunaren bezpera. Arratsaldean ekingo diote jaiari, Mielaren jaitsierarekin eta txupinazoarekin. Txosnen irekiera ere egun horretan egingo dute.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Bilera

Mimendi, Bazkardo eta Kalonge auzoetako bizilagunei zuzenduta. A15 eta N1 errepideen egitasmoari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago, datorren irailaren 14ra bitarte. **19:00, Bastero.**

IGANDEA 4

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Basajaun, Lamia, sorgina, Gentilak... pertsonaia mitologikoak Leitzarango Otieta parkean. "Numenak" ikuskizuna. **18:00, Otieta.**

ASTELEHENA 5

ANDOAIN Bilera

Zumea, Martin Ugalde, KARRIKA, Miranda pasealekua eta Aita Larramendi kaleko bizilagunei zuzenduta. A15 eta N1 errepideen egitasmoari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago. **19:00, KARRIKA elkarte.**

ASTEAZKENA 7

ANDOAIN Bilera

A15 eta N1 errepideen egitasmoari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago. Auzotarrak bilerara deitu ditu Sorabilla-Errotagain elkarteak. Aurretik egindako batzarrari jarraipena eman nahi diote. **19:00, Sorabillako Erretoretxea.**



Afitxa Zumea kalean.

ANDOAIN Bilera-sorta, N1 eta A15 errepideen eraldaketa medio

Foru Aldundiaren egitasmoari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago eta Andoainen hiru bilera ezberdin deitu dituzte, hurrengo hiru egunetan.

Irailak 1, osteguna. 19:00, Bastero Kulturgunea.

Irailak 5, astelehena. 19:00, KARRIKA elkarte.

Irailak 7, asteazkea. 19:00, Sorabillako Erretoretxea.

LARUNBATA 10

URNIETA Lehiaketa

Urnietan eskultura ipintzeko deialdia egin dute, eta azken aukeraketan urnietarrek parte hartzeko aukera izango dute. 14 urtetik gorakoek eman dezakete botoa Urnieta.eus webguneko partaidetza atalean. **Parte hartzeko azken eguna.**

ANDOAIN Ikuszirkus

"[e.go]" ikuskizuna, Dikothomia konpainiaren eskutik. **19:00, Zumea plaza.**

IGANDEA 11

URNIETA Igerilekua

Egunero zabalik dago. **10:00-20:30, azken eguna.**

ANDOAIN Ikuszirkus

"Mikra" ikuskizuna. **19:00, Goikoplaza.**

OSTIRALA 16

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

Egitaraua prest dute. **18:30, txupinazoa.**

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Padre no hay más que uno 3
Lar, 3. 19:30, 22:00.
Ig, 4. 17:00, 19:30.
Astl, 5. 19:30, 22:00.
Astr, 6. 19:30.
Dios mío, ¿pero qué nos has hecho?

Ost, 9. 19:30.
Lar, 10. 19:30, 22:00.
Ig, 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.

Minions
El Origen de Gru
Ost, 9. 17:00.
Lar, 10. 17:00.
Ig, 11. 17:00.



SINOPSIS



PADRE NO HAY MAS QUE UNO 3

Zuzendaria: Santiago Segura. **Aktoreak:** Santiago Segura, Toni Acosta, Loles Leon, Martina D'Antiochia, Luna Fulgencio...

Herrialdea: Espainia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 99 minutu.

Gabon giroan, uda betean

Gabonak hurbiltzen ari dira. Haurrek aitaren bildumako jaiotzako iruditxo bat apurtzen dute ustekabean, eta egin ahal guztiak egingo dituzte iruditxo berdina lortzeko. Arazo bat dute, halere, hautsitakoa antikuarioko pieza bakarra dela. Uda honetan Espainiako zinema aretoak bete dituen filma Gabon giroan kokatuta dago. Horrek esan nahi du udan ikusten ez duenak Gabonetan telebistan

ikusteko aukera izango duela. Film honekin abiatu da zinema denboraldia Bastero Kulturgunean. Helduei begira, "Dios mio, pero que nos has hecho" filma eskainiko dute irailaren 9ko asteburuan, eta "El test" irailaren 16an. "Modelo 77" eskainiko dute azken asteburuan. Haurrei begira, "Minions" filma eskainiko dute datorren asteburuan.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:


Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Urnietako Udal igerilekua. AIURRI

Urnietako igerilekuaz gozatzeko azken egunak

Irailaren 11n amaituko da igerileku irekiaren denboraldia. Egunero zabalik egon da, hiru hilabetez

Erredakzioa URNIETA

Aspaldiko udarik beroena izan da, eta Urnietako igerilekua urnietar eta andoaindar askoren pausalekua izan da uda honetan. Ekainaren 11n zabaldu zituzten ateak eta datorren irailaren 11n itxiko dituzte.

Astelehenetik igandera, eta, hiru hilabetez jarraian, igerilekua zabalik izan da 10:00etatik 20:30etara. Ikasturtea hasi birtarte, igerilekuaz gozatzeko aukera izango da. Eguraldiak lagunduz gero, frexkatzeko aukera aproposa.



Andoaingo AEK euskaltegia. AIURRI

Euskara ikastea eta trebatzea, ikasturte berrirako aukera

Irailaren 23ra arte zabalik dago euskara ikastaroetan izena emateko matrikulazio-epaia


Komunitatea

AEK / ANDOAIN

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak, gurasoentzako ikastaroak, merkatariei begirako ikastaroak, AISA etorkinentzako ikastaroak, hasiera mailak eta goi-mailak... Andoainen,

Tolosaldean eta Alegialdean ere ematen ditugu euskara klaseak. Aurten bai, egin apustu euskararen alde! Informazio osagarria euskaltegian bertan (Plazaola 2, behea), andoain@aek.eus helbidean edo 943 59 17 04 telefonora deituta.

ZORION AGURRAK



URNIETA Zorionak Izaskun!
Uztailaren 22an zazpi urte bete zenituen! Muxu handiak etxeko guztien partetik!!!

ANDOAIN Zorionak Inge!
Inge Igarriz Lizasok abuztuaren 5ean 15 urte bete zituen. Muxuak etxekoien partetik.

ANDOAIN Zorionak Nerea!
10 urte beteko ditu irailaren 3an. Jarraitu orain bezain jator eta alai. Muxu erraldoiak, etxekoak.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Irailak 12, astelehena. Andoain 16:30-20:30. Anbulatorioa.

Irailak 21, asteazkena. Urnieta 16:30-20:30. Gaztelekua.

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Ingeleseko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. **650 34 11 08**

SALGAI

'Antiescaras' koltxoia salgai. **660 235 259**.
Etxabea salgai Andoainen, altuera handikoa. 47 m². Sukaldea eta komuna ditu. Uraren toma mangerarekin. **667 058 641**.



BERTSO AFARIA

IRAILAK 23, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Txartelak: Kantoi, Matxo, Oianume, Ernaitza, Aiurri



Maialen Lujanbio



Amets Arzallus

Gai-jartzailea: Amaia Agirre

**IRAILAREN 7TIK AURRERA
TXARTELAK SALGAI**

Antolatzaileak:

AIURRI 

*Poxta
Zahar*

EUSKARALDIA

